

**“UDALTZAINGOAREN OINARRIZKO ESKALAKO UDALTZAIN AGENTE LEHENAREN” PLAZA
OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ ETA BARNE PROMOZIOZ HORNITZEKO
HAUTAKETA-PROZESUAREN OINARRI-ARAUAK**

Lehena. XEDEA

Oinarri-arau hauen helburua da hutsik dagoen “**Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako Udaltzain Agente Lehena**” plaza hornitzeko deialdia egin eta hautaketa-prozedura arautzea.

Epaimahaiak ezin izango ditu hautatu deitutako plaza kopurua baino hautagai gehiago.

Halere, deialdiko plaza kopurua handitu daiteke hautaketa prozesua amaitu baino lehen hutsik gelditzen diren lanpostuekin.

Begarako Udaleko karrerako funtzionario gisa sartzeko prozeduran, emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioa aitortzen da.

Bigarrena. PLAZAREN ETA LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

PLAZA

Udaltzaingoaren oinarrizko eskalako agente lehena. (1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu betegina onartzen duenaren 35.1.d. artikuluko sailkapenaren arabera).

Sailkapen taldea: C1

Ordainketa guztira gordina: Lan hitzarmeneko soldata tauletako 16 soldata maila du.

Eskatutako hizkuntza eskakizuna: 3. hizkuntza eskakizuna, derrigorrezkoa, eta derrigorrezkotasun eguna amaituta.

Lan-ordutegia: Ohiko ordutegia izango da udalak momentuan erabakitzen duena eta lanpostuaren eginkizunek eskatzen dutena, astelehenetik igandera, egutegiaren eta zerbitzuen premien arabera.

Erabateko prestasunaren erregimena: Lanpostuak dedikazio bereziko erregimena izatea eskatu ahalko dio udalak, eta derrigorrezkoa izango da.

LANPOSTUAREN EGITEKOAK

Eginkizun esanguratsuenak:

- **Funtzio betearazleak (exekutiboak)**
- ✓ Jarduera polizialek eskatzen duten funtzio exekutiboak egin. Udaltzaingoaren zerbitzua eta bere menpe dauden agenteak bere gain hartu.
- ✓ Udaltzain agenteen lantalde bat gidatu, jarraibideak eta informazioa eman:
 - Eguneroko lantaldearen bilera prestatu. Ofizialekin eta beste agente lehenekin bildu eta laneko materiala prestatu. Zerbitzurako plangintza egin, helburuak betetzeko eskuarteak jarri.
 - Lantaldearen bilera bideratu. Zerbitzua antolatu, lanak eta lan erramintak banatu, betiere helburua ondo betetzeko.

- Udaltzain bakoitzaren lanak eta ardurak banatu. Irizpideak eman eta ulertu dutela egiaztatu, beti neutraltasun eta inpartzialtasun osoz, diskriminaziorik gabe.
 - Antolatu eta plangintzak egin. Zerbitzuak eta laneko helburua gainbegiratu.
 - Agenteei emandako lanen jarraipena egin eta betetzearen maila egiaztatu.
- ✓ Udaltzain agenteek egin dituzten dokumentu guztiak gainbegiratu eta gestionatu.
(Atestatu penalak, trafiko istripuak, txostenak....)
- ✓ Bere menpeko taldean egiten diren atestatu guztien instruktore izan.
- ✓ Zerbitzuko gertaera guztien eguneroko txostena formatu digitalen bete.
- ✓ Erabilgarria dugun errekurtsio material guztia eta bere egoera kontrolatu.
- Bergaran eta Deba Garaian burutu diren delitu-egintza guztien informazioa lan taldeari zabaldu. Epe motzera zein luzera izango ditugun ekintzei buruz informatu. Legislazioaren edo protokoloen aldaketak lantaldeari jakinarazi eta agenteak hezitu. Udaltzainen iritzia edo iradokizunak jasotzeko bidea zabaldu eta ondorioaz jokatu.
 - Eguneroko Udaltzaingoaren aktuazio guztien partea euskarri informatikoan bete.
 - Udaltzain guztiei, TETRA emisora digital bana eman eta horren kontrolerako Udaltzaingoaren euskarri digitalean erregistratu.
 - Bertan behera utzitako ibilgailu guztien etengabeko kontrola eta eskatzen duten tramitazioa burutu.
 - Udaltzain guztien lanaren txandak, oporrak, bajak, lizentziak eta abar kontrolatu. Izan daitezkeen ordezkapenak antolatu eta udaltzainen lan egutegiaren kontrola eta jarraipena egin.
 - Herritarren salaketak jaso eta legearen urratze penalen edo istripuen atestatu guztien instruktorea izan eta epaitegira bidali. Gertatutakoa argitzeko dagokion ikerketak egin.
 - Mota guztietako txostenak eta aktak erredaktatu: Udal ordenantzen arau hausteak, istripuak, matxurak, obra gelditzeak, ibilgailuen ibilgetzeak eta abar. Bakoitzari, dagokion irteera eman.
 - Udaleko edo beste administrazioetako arduradunekin harremanetan jarri informazioa jaso/emateko, lanak antolatzeko, segurtasuna bermatzeko, elkarlanean jarduteko eta abar.
 - Berdin, enpresa pribatuen, kultur taldeen, kirol taldeen, gremioen arduradunekin harremanetan jarri.
 - Praktikaldian dauden udaltzain agenteen aktuazio profesionalen jarraipena egin. Faktore desberdinak ikuskatu, informazio adierazgarria erregistratu beti ere egokitasuna baloratzeko.
 - Arau legeetan espreski jasota ez dauden kasuetan, erabakiak hartu eskumeneko boterea aplikatuz eta kasuz kasu esku hartu.
 - Udaltzain agenteen funtzio guztiak bete.
 - Udalak erabakiko balu udaltzaingoak Armak izatea eta hornitzea: armak eraman eta armak erabiltzeko konpromisoa hartzea, indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan, zinpeko aitopenen bidez.
 - Eta bere arduradunek agindutako eginkizunak modo zuzenean betetzea.

Hirugarrena. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute eskatutako baldintza orokorrak eta eskainitako lanpostua betetzeko lanpostuen zerrendan ezarritako betebeharrak biltzen dituzten Udaltzaingoko funtzionario guztiek, zerbitzu aktiboan daudenak, zerbitzu berezietako egoeran daudenak, seme-alabak zaintzeko eszedentzian daudenak eta 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testuategina onartzen duenaren 86. artikuluan jasota datorren eszedentzian daudenak.

Kasu guztietan, nahitaez baldintza hauek bete behar dira gutxienez:

1. Karrerako funtzionarioa izanik, zerbitzu aktiboko egoeran egotea Bergarako Udaltzaingoko Agente kategorian, eta hiru urtez egiaz eskainitako zerbitzuak beteta izatea kategoria horretan. Benetan egindako zerbitzuen aldia zenbatuko da 1/2020 Legegintzako Dekretuaren (uztailaren 22koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testuategina onartzen duena) 78.3.b artikulua araberak.
2. Hutsegite larria edo oso larria egiteagatik zigorrik jaso ez izana, ezarritako sartzioa deuseztatzea lortu ezean.
3. Bete beharreko eginkizunak betetzea eragotziko duen arazo fisikorik edo gaixotasunik ez edukitzea, betiere 36/2004 Dekretuak ezarritakoaren arabera (otsailaren 17ko 36/2004 Dekretua, Euskal Herriko Poliziaren hautaketa eta prestakuntza araudia onartzen duen dekretua bigarren aldiz onartzen duena), egoki irizitako mediku-azterketak egin ondoren.
4. B+E klaseko edo baliokidea den gida-baimenaren jabe izatea eta indarrean edukitzea.
5. Goi batxiler edo baliokidea den titularen jabe izatea.
6. Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-
eskubideengatik tasa ordaindu izana.

Azterketa egiteko tasa (20,65 euro) ordaintzeari dagokionean, beti transferentzia bidez egingo da, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Transferentzia egiterakoan, derrigorrez espediente-zenbakia eta deialdian parte hartuko duenaren NAN zenbakia adierazi beharko dira.

Transferentzia-agiria eskaerarekin batera aurkeztuko da.

Ordainketa eskaerak egiteko epean egin beharko da kontu korrante honetan:

KUTXABANK

ES94 2095 5070 79 1061075569

Laugarrena. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Hauta-prozesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan osatuta aurkeztuko dira, gehienez ere hogei (20) laneguneko epean –deialdiaren iragarpena ESTATUKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita–.

Eredu ofizial hori oinarri hauei erantsirik doa, eranskin gisa. Eta eskuratu ahal izango da, halaber, Bergarako Udaletxeko Bergararren Arreta Bulegoan (BAZean) (8:00etatik 15:00etara bitartean, asteleheneetik ostiralera) eta Udalaren webgunean (www.bergara.eus/erregistroa).

Onartua izateko, eskabideak Bergarako Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko zaizkio eta ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte errefusatuak ez izateko:

a) Hautagaiek adierazi beharko dute deialdiko Hirugarren Oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzen hartuta.

b) Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren fotokopia; edo identitatea eta nazionalitatea egiaztatzen dituen dokumentuarena, beste estatu bateko hautagaien kasuan.
- Gida-baimenaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko beharrezkotzat eskatutako tituluaren fotokopia.
- Kasua hala bada, 3. hizkuntza-eskakizuna betetzen duela edo euskarako ziurtagiri edo titulu baliokideetakoren bat badaukala egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-eskubideengatik tasa ordaindu izanaren agiria .
- Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, merezimenduen fasean ebaluatua izateko.

Oharra: Ez dira kontuan izango eskabidean alegatu ez diren merezimenduak ezta eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentuekin eta instantziak aurkezteko epean egiaztatu/entregatu ez direnak ere.

Dokumentu horiek fotokopiak izango dira eta honako hauek izan beharko dira gutxienez eta ezinbestekotzat izanik agiri mota eta edukiari dagokionean:

1.-Lan edo zerbitzuen esperientziari dagokionean:

Egindako zerbitzuak ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira. Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak zerbitzu horiek bete diren Administrazioak emandako agirien bitartez egiaztatuko dira, horretarako eskumena duten organoek eginak izango dira eta ziurtagiri horietan zehaztuko dira enplegu-harremanaren iraupena, dedikazioaren portzentajea eta betetako lanpostuaren funtzioak.

Begarako Udalean egindako zerbitzuak, betiere eskabidean adierazi badira, agiri bidez kreditatu beharrik ez da izango eta hautagai bakoitzaren espedientearen ageri diren datuen arabera ebaluatuko dira.

2.-Prestakuntza. Ikastaroak erakunde ofizialek emandakoak edo homologatutakoak izango dira eta bakoitzaren gaitegia edo edukia zehaztuta eta formazio-ekintzen iraupena ordutan jaso beharko dute baloratuak izateko.

Informazio hori jasotzen ez duten agiriak ez dira kontuan izango.

Halaber, sor daitezkeen zalantzak edo aurreikusita ez dauden kontuak ebazteko ahalmena epaimahaiaren esku egongo da.

c) Hautagaiak eskabidean adierazi beharko dute Euskadiko Komunitate Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten azterketen faseko ariketak.

Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira:

- presentzialki B@Zean (Begararren Arretarako Zerbitzuan; helbidea: San Martin plaza, 1. zk.a, 20570 Bergara) .
- Telematikoki, Bergarako udaleko web orrian: www.bergara.eus/erregistroa).

Eskabideak, era berean, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkeztu ahal dira (*urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearena*).

Izan ditzaketen egitezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko eskabidean merezimenduak adierazi ez izana, horiek egiaztatzeko agiriak eskabideari erantsi ez izana, tasak ordaindu ez izana edo oinarrietan adierazitakori jarraituz behar beste informazioa ez duten agiriak. Baldin eta interesatuak gai horri buruzko omisioren

bat hautematen badu, zuzendu ahalko du eskabideak aurkezteko epea amaitzen den artean; behin epe hori bukatutakoan, zuzenketa ez da onartuko.

Bosgarrena. IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOA BETETZEA

Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 Araudiak 2016ko apirilaren 27koak datu pertsonalen tratamendu eta datu horien zirkulazioa libreari lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta datuen babesari buruz indarrean dagoen gainontzeko araudiak ezarritakoa betez, izangaien izaera pertsonaleko datuak tratamendu-jarduera baten baitan kokatzen dira. Tratamendu horren helburua da langileak hautatzeko prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egitea, baita hautaketa prozesutik sortuko den lan-poltsa kudeatzea ere.

Bergarako Udala, datu tratamenduaren arduradun gisa, datu pertsonalak tratatzeko legitimatuta dago interes publikoaren izenean egindako misio bat betetzeagatik tratatzen direlako datuak, lege betebeharraren baitan tratatzen direlako, eta baita, datuak beharrezkoak direlako interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko tratamendua beharrezkoa delako. Halaber, izangaiak berariazko baimena eman beharko dute parte hartzeko eskaeran beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko. Datu lagapen horren helburu bakar eta eksklusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu eskaintzak egin ahal izatea, legez aurreikusi bezala. Izangaiaren onarpenera berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

Datuak eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, tratamenduaren aurka egin zein horien mugatzea eskatzeko eskubidea egikaritu ahal izango da tratamenduaren arduradunaren aurrean, ondorengo helbidera zuzenduta: San Martin Agirre plaza, 1, 20570, Bergara (Bergarako Udala).

Eskubideen egikaritzan behar den arreta jaso EZ bada, Datuen Babeserako Euskal Bulegoan erreklamazioa jarri ahal izango du izangaiak. Helbidea: Beato Tomás de Zumárraga, 71 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, Udalaren datuen babesaren ordezkariarekin jarri ahal izango da harremanetan, datuen tratamenduari lotutako edozein afera dela eta, honako posta helbidera mezua bidalita: dbo@bergara.eus.

Seigarrena. HAUTAGAIK ONARTZEA

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko du alkateak, eta aginduko du argitaratzeko udaletxeko iragarki taulan, web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Erreklamazioak egiteko 10 egun naturaleko epea ezarri da akatsak zuzendu ahal izateko.

Behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da inolako erreklamaziorik egon ezean. Egonez gero, onartu edo baztertu egingo dira Alkateak erabakiz eta behin betiko zerrenda onartuko da, eta horren berri emango du Udalak, lehen adierazitako moduan.

Prozeduraren edozein unetan epaimahaiak jakinez gero hautagaien batek ez duela betetzen deialdian eskatutako baldintzaren bat, hautaketatik kanporatua izango da, entzun eta gero.

Probetan onartutako hautagaiak parte hartu ahal izango dute, baita zerrendetan baztertuta daudenean ere, baldin eta dagozkien inpugnazioak aurkeztuak dituztela eta erabakitzeke daudela frogatzen badute. Ebazpenean erreklamazioak atzera botako balituzte, pertsona horiek prozesutik kanpo geratuko lirateke.

Zazpigarrena. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

Epaimahai kalifikatzailea eratuko da Enplegatutako Publikoaren 5/2015 Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluari jarraiki, eta 40/2015 Legeko 15. artikulutik 18. artikulura araututakoaren arabera funtzionatuko du.

7.1. Osaera:

Deitutako hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondorengoak kontuan izanda eratuko da:

- Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratuak 60. artikuluan ezarritakoa
- Ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa
- Uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duena

Epaimahaia osatuko dute mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen kideek, Udalean presentzia duten langileen ordezkariak izendatutako kide bat eta prozesu osorako Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak izendatutakoak, tartean. Edonola inoiz ez dira izango bost baino gutxiago.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako batek euskararen probarako ere hartuko du parte epaimahaian.

Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatutakoan.

Udalan presentzia duten alderdi politikoek izendatutako kide banak ere parte har dezakete begirale moduan.

7.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiak izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

7.3. Abstentzia eta errefusatzeta. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero; eta izangaiek mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

7.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

7.5. Eraketa eta lan-egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezko gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

7.6. Jarduketa-prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto-berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiak hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, hautatutako izangaiek behin betiko kontratua sinatu

baino lehenago uko egiten badio, proposaturiko izangaiaren ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

d) Izangai batek ere gaudituko ez balitu baztertzailak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

Lehiaketa-oposizioa epaituko duen Epaimahaia kide titularrez eta ordezkoez osaturik egongo da, eta horien izendapena argitara emango da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-taulan eta Bergarako Udalaren webgunean.

Epaimahaiburuaren edo bere ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, ordezkapen horretarako izendatu den bokalak ordezkaturiko du; eta hura ere bertaratu ez balitz, Epaimahai Kalifikatzaileko kideen artean adin handiena duenak.

Idazkariaren eta haren ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, Epaimahai Kalifikatzaileko gehiengoaren erabakiz hautaturiko beste edozein kidek hartuko du haren lekua.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, betiere prozeduraren legezotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebartziko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Hauta-prozesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetakoren bat, interesatuari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

Aholkulari espezialistak erabili ahal izango ditu epaimahaiak, balorazioaren faseetako batean parte hartzeko.

Zortzigarrena. LEHIAKETA- OPOSIZIOA

Hautaketa prozesuak bi fase ditu:

1. Lehen fasean, oposizio fasea, lehen atalean aipatutako probak burutuko dira. (80 puntu)
2. Bigarren fasean, lehiaketaldian, bigarren atalean merituak baloratuko dira. (30 puntu)

1. fasea. PROBAK

Ondorengo probak izango ditu eta guztira **80 puntu** baino gehiago ezin izango da lortu.

1) Lehen proba (derrigorrezkoa eta baztertzaila): Ezagutzari buruzko ariketa teoriko-praktikoak.

Idatziz egin behar dira ariketa teoriko edo/eta teoriko-praktiko batzuk, lanpostuaren eduki funtzionalarekin eta/edo I. Eranskineko gaiekin lotutako jakintzari buruz.

Epaimahaiak ariketa jendaurrean aurkeztea erabaki dezake.

Proba honen balioa gehienez **30 puntukoa** izango da puntukoa, eta gutxienez 15 eskuratu beharko dira prozesutik baztertua ez izateko. Gainera ariketa bakoitzari emandako puntuazioaren %50a atera beharko da ariketa gauditzeko.

2) Bigarren proba (derrigorrezkoa eta baztertzaila): Proba psikoteknikoak eta elkarrizketa pertsonala. Guztira 50 punturekin

2.1.- Proba psikoteknikoak. Hautagaiak lanpostuaren profil profesional eta bete beharreko funtzioetara nola egokitzen diren ebaluatzaera bideraturiko gaitasun edo/eta nortasunari buruzko proba psikoteknikoak egitea izango da. Proba hauek elkarrizketa ere izan dezakete.

Proba psikotekniko hauek gaitasunak eta jarrerak zehazteko dira eta bete beharreko lanpostuaren profilerako egokitasun maila ebaluatzeko, bereziki, agintarekin zerikusia duten gaitasunak eta ofizial kategorian honi dagozkion polizia eginkizunetarako egokitasuna.

Bigarren ariketa honen lehen atalari **hogeita hamar (30)** puntu emango zaizkio gehienez, eta guztira hamabost (15) puntu lortu beharko dira gainditzeko eta prozesuarekin jarraitzeko.

2.2.-Elkarrizketa. Izaera pertsonaleko elkarrizketa bat eta/edo talde dinamika bat egingo da, aztertzeke profil profesionalarekiko egokitasun maila.

Proba honen balioa gehienez **20 puntukoa** izango da eta guztira hamar (10) puntu lortu beharko dira gainditzeko eta prozesuarekin jarraitzeko.

Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak, IVAPek edo enpresa espezializatuak kanpo zerbitzu bitartez burutuko ditu proba hauek.

2. Fasea. MERITUAK (30 puntu gehienez)

Meritu hauen inguruko ziurtagiriak deialdi honetan parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztuko dira eta gainera eskabide orrian zerrendatu beharko dira kontuan izateko.

- Ez dira inola ere baloratuko aurkeztu ez diren merezimenduak eta behar bezala egiaztatu ez direnak.
- Merituak baloratzeko, gehienezko erreferentzia izango da eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna.

Meritu fase hau irizpide hauen arabera baloratuko da:

1) Lan eskarmentua

Gehienez 20 puntu emango dira atal honetan. Baloratuko da Udaltzaingoan ondorengo kategoriatan burututako lan postuetan ziurtatutako lan eskarmentua, gutxienez hilabete osorik eta jarraian egindako esperientzia tarteak baloratuko direlarik.

Baloratuko dira, halaber, parte hartzeko eskatutako gutxieneko baldintzaren gaineratik egindako esperientzia-denborak (ez da baloratuko baldintza gisa eskatu den gutxieneko esperientzia, agente kategorian egindakoa hartuko delarik aintzat eragin hauetarako beti ere behar den denbora bete artekoa):

- ** Agente lehena: 0,15 puntu hilabete bakoitzeko.
- ** Agentea: 0,10 puntu hilabete bakoitzeko. Gehienez, 10 puntu.

Egiaztatzeko, egiaztagiria aurkeztu beharko da Egiaztagiria jatorrizko herri-administrazioetako eta erakundeetako funtzio publikoko, pertsonaleko, giza baliabideetako edo antzeko zuzendaritzek egin beharko dute.

2) Prestakuntza eta hobetze ikastaroak:

Gehienez 2 puntuz baloratuko da gai hauei buruzko ikastaroak gainditu izana –betiere diploma edo egiaztagiri bidez ziurtatuta baleude–: lanpostuarekin eksklusiboki eta zuzenean lotuta dauden prestakuntza eta hobetze ikastaroak, genero berdintasun eta emakumeen ingurukoak, keinu-hizkuntzari buruzkoak, Zuzenbide, Herritarren Segurtasun eta Babes Zibilar buruzkoak..

Gehienez ere 2 puntu eskuratuko dira, irizpide hauen arabera:

- 10 ordu arteko ikastaroa: 0,05 puntu.



- 10 eta 30 ordu bitartekoa: 0,10 puntu.
- 31 eta 60 ordu bitartekoa: 0,20 puntu.
- 61 eta 100 ordu bitartekoa: 0,50 puntu.
- 100 eta 150 ordu bitartekoa: 0,75 puntu.
- 150 eta 200 ordu bitartekoa: 1,0 puntu.
- 200 eta 250 ordu bitartekoa: 1,50 puntu.
- 250 ordu baino gehiago: 2,00 puntu.

Ikastaroen orduak egiaztatzen ez badira, ez dira baloratuko.

Bakar -bakarrik kontuan izango dira 2016tik aurrera jasotako ikastaroak.

3) Euskara. 4. HEren maila ziurtatzea (C2) 4 punturekin baloratuko da.

4) Titulazio akademikoak.

Ez da baloratuko lortu nahi den kategoriara sartzeko erabilitako titulazioa.

Atal hau gehienez 2 puntu baloratuko da. Betiere, titulazioak Kriminologia, Zuzenbide, Herritarren Segurtasun, Babes Zibil, administrazio/antolaketa arlokoa edota lanpostuaren zereginekin zerikusi zuzena izan beharko du.

- Doktore titulazioak: 1 puntu.
- Lizentziatu, gradu edo titulazio baliokideak: 1 puntu.
- Diplomatura edo titulazio baliokideak: 0,5 puntu.
- Goi mailako teknikari titulua (beti ere ez bada parte hartzeko titulu gisa alegatua izan): 0,25 puntu.

Bederatzigarrena. EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa meritu eta probetan (betiere hauek gaindituz gero) eskuratutako puntuazioaren batuketatik ondorioztatuko da. Kalifikazio honek zehaztuko du lehentasun hurrenkera.

Ariketen kalifikazioa eta merituen balorazioa bukatutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileak lehiatzaileen zerrenda argitaratuko du –guztira ateratako puntuazioaren ordenan– Iragarki Taulan eta udal web-orrian, eta bost laneguneko epe bat emango du erreklamazioak aurkezteko epaimahairi.

Ariketen kalifikazioa eta merituen balorazioa egin ondoren, Epaimahai Kalifikatzailearen akordioz behin betiko emaitzak onartu eta udalaren iragarki oholean eta web orrian argitaratuko dira, lehiakide guztien zerrenda puntuazio osoaren hurrenkeraz. Ondoren, epaimahaiaren aurrean erreklamazioak jartzeko 5 laneguneko epea zabalduko da.

Hamargarrena. ERREKLAMAZIOAK EBAZTEA ETA AGIRIAK AURKEZTEA

Erreklamazioak ez baleude, argitaratutako emaitzak behin betikotzat joko dira. Erreklamazioak baleude, ebatzi eta argitaratu egingo ditu epaimahaiak, eta jarraian akta Alkate-udalburuari bidaliko dio, proposatuz praktiketako funtzionario izenda dezan lehen postuan gelditu den pertsona. Era berean, akta horretan bertan agertuko dira, puntuazioaren hurrenkeran, ariketa baztertzailer guztiak gainditu dituzten hautagai guztiak.



Hala ere, izendapena baino lehen, lehen tokian gelditu den pertsonak udaletxeko pertsonal sailean aurkeztu beharko du, behin betiko emaitzak argitaratu eta biharamunaz geroztik 15 laneguneko epean, prozesu honetan parte hartzeko baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duen dokumentazioa, hirugarren oinarrian aipatu bezala.

Aipatutako epealdian, gaindiezina den egoera larri batean izan ezik, proposatutako pertsonak dokumentazioa ekarri ez badu edo ez baditu eskatutako baldintzak egiaztatu, ez da izendatua izango eta berekin izandako ekintza guztiak baliogabetu egingo dira. Kasu honetan, bigarren lekuan dagoen pertsonaren alde egingo da proposamena.

Hamaikagarrena. PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIO IZENDATZEA

Aukeratutako hautagaiak prozesu honetan oinarrien hirugarren atalean ezarritako parte hartzeko baldintzak bete dituela behar bezala egiaztatu eta gero, praktiketako funtzionario izango da izendatua Alkate Dekretuz. Bere izendapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Praktiketako funtzionario izendapenak hautaketa prozedura gainditzearekin du lotura, soil soilik funtzionarioa prestakuntza ikastarora sartuko den unetik eta karrerako funtzionario gisa izendapena egin bitartean edota bere kanporatzea erabaki bitartean.

Hamabigarrena. PRESTAKUNTZA EDO FORMAZIO IKASTAROA ETA PRAKTIKALDIA

Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia derrigorrezkoak eta baztertzailleak dira, banaka kontuan hartuta.

Gainditu ezean, automatikoki kanporatua izango da hautaketa-prozesutik hautagaia, eta ondorioz, "udaltzaingoaren agente lehenaren" plazarako balizko eskubideak galtzea eragingo du.

Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia ezin dira aldi berean gauzatu. Iraupena gehienez 30 hilabetekoa izango da.

Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia antolatu eta garatzea, Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiari dagokio baita bere azken ebaluazioa ere.

Hautaketa-prozesu honen aldi hau dela eta, kontuan izango dira 1/2020 Legegintzako Dekretuak (uztailaren 22koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen Testu Bateginak onartzen duena) ezarritakoa eta 315/1994 Dekretuak (Euskadiko poliziaren hautaketa eta formazioaren Erregelamenduak) araututakoa.

Hamahirugarrena. PRESTAKUNTZA EDO FORMAZIO IKASTAROA

Nahitaezkoa eta baztertzaillea den prestakuntza ikastaroa, izaera selektiboa duen ikastaro akademikoa da eta aurrez zehaztutako ikasketa plana eta iraupena izango du. Hasiera Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak zehaztuko du ebazpen bidez.

Ikastaroaren azken kalifikazioa udal web orrian eta iragarki oholean iragarriko da.

Hamalagarrena. PRAKTIKALDIA

Praktikaldia derrigorrezkoa eta baztertzaillea da.

Praktikaldia abiatu aurretik, Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiako zuzendaritza orokorrak ebazpen bidez zera ezarriko du: praktikaldiaren iraupena, balorazio sistemak eta prozedurak eta praktikaldia nola gaindituko den. Ebazpen hori Euskadiko polizia akademia zein Bergarako Udaleko web orrian eta iragarki oholean argitaratuko da.

Praktikaldiaren azken kalifikazioa gai / ez gai izango da eta udalaren zein Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiako web orrian eta iragarki oholean argitaratuko da. Praktikaldiaren arduradunak ezarritako kalifikazio hori loteslea edo binkulantea izango da bai epaimahai kalifikatzailearentzat bai karrerako funtzionario izendapena egiteko eskuduntza duen Bergarako udal organoarentzat.

Hamabosgarrena.- KARRERAKO FUNTZIONARIO IZENDATZEA

Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia gainditu ondoren, Bergarako Udaleko karrerako funtzionario izendatuko da hautagaia. Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratuko da izendapen hori. Izendatu ondoren, plaza jabetzan hartu beharko du 10 laneguneko epean, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Gainerakoan, ordura arte gauzatutako jardun guztiak eraginik gabekoak izango dira eta karrerako funtzionario izateko egoki dakizkiokeen eskubideak galduko ditu.

Prestakuntza ikastaroa edota praktikaldia gainditzen ez badu, kanporatua izango da hautaketa prozesutik.

Hamaseigarrena.- ARAUDI EZARGARRIA, GORABEHERAK ETA AURKATZEAK

Udaltzaingoko lanpostuak hornitzeko hautaketa-prozesuen deialdietan honako legeria aplikatuko da:

- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa.
- Abuztuaren 2ko 30/1984 Legea, Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriei buruzkoa.
- Uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki-administrazioko funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxienerako programak ezartzeari buruzkoa.
- Euskadiko Poliziaren Legearen Testu Bateratua, uztailaren 22ko 1/2020 Dekretu Legegileak onartua.
- 315/1994 Dekretua, uztailaren 19koa, Euskal Herriko Poliziaren hautespen- eta prestakuntza-araudia onartzen duena.
- Ordezko gisa, Estatuko Administrazio Orokorrean sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak bete eta lanbide sustapenerako Erregelamendu Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartua.
- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko 10/1982 Legea, azaroaren 24koa.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- Emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.
- Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestu eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.



- Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Toki araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak onartua.
- Euskadiko Toki Entitateen apirilaren 7ko 2/2016 Legea.
- Oinarri orokor hauek
- Deialdi bakoitzerako onartzen diren oinarri espezifikoak.

Indarrean den arloko araudia, orokorrean, hornitu beharreko lanpostuaren Gorputz eta Eskala edozein dela.

I. ERANSKINA

1. Udal Administrazioa: 7/1985 Legea. Udalerria. Xedapen orokorrak. Udal antolaketa. Derrigorrezko organoak eta organo osagarriak.
2. Euskadiko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legea: Araudiaren helburua eta xedea, printzipio orokorrak, II. tituluko IV. kapitulua (Administrazio arauetan eta jardueretan berdintasuna sustatzeko neurriak), III. tituluko VII. kapitulua (Emakumeen aurkako indarkeria matxista).
3. Estatuko 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurkako babes integralko neurriei buruzkoa: IV. eta V. tituluak.
4. Hizkuntzaren erabilera zuzena: Komunikazioa eta zerbitzuaren kalitatea: Komunikazio-prozesua. Elementuak. Oztupoak komunikazioan. Administrazio-dokumentuak hobeto idazteko jarraibideak. Administrazio-dokumentuen motak. Administrazio-dokumentuen oinarritzko egitura. Hizkuntza errespetuzkoa eta ez-sexista.
5. 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena. I. tituluko IV. kapitulua. II. tituluko I. eta III. kapituluak. IV. tituluko X. kapitulua.
6. 15/2012 Legea, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa: III. titulua eta IV. titulua.
7. 320/1994 Errege Dekretu Legegilea, Trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren zigor prozedura. Artikulu hauek: 1etik 10era, 14, 18, 19 eta 20.
8. 8/2004 Errege Dekretu Legegilea, Motordun ibilgailuen zirkulaziorako erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko legearen Testu Bategina: I. tituluko I. kapitulua. I. tituluko II. kapituluko I. atala.
9. 10/2015 Legea, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena. III. titulua (III. kapitulua) eta IV. titulua.
10. 17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea Garatzeko Erregelamendua onartzen duena.
11. Animalia arriskutsuak: Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeari buruzko 50/1999 Legea. Txakurrak edukitzeari buruzko 101/2004 Dekretua.
12. Herritarren arreta eta komunikazioa. Herritarren kexak kudeatu. Hizkera administratiboaren erabilera egokia.
13. Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa (Emakunde).
14. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa: II., III. eta IV. tituluak.
15. Eraikinak hustea: Autobabeserako planen hastapenak. Gertakariari erantzutea. Gutxieneko jokabide-jarraibideak. Okupazio handiko eraikinak. Larrialdi Plana.
16. Lehen laguntzak: lesioen lehen eta bigarren mailako balorazioa. Bihotz-biriketako bizkortzea. Aire-bideen buxadura. Odoljarioak. Erreduren arreta orokorra.
17. Gardentasunaren 19/2013 Legea: I. titulua, II. eta III. kapituluak.
18. Bergarako Udalean indarrean dauden ordenantzak eta araudia.

BASES DEL PROCESO SELECTIVO PARA LA PROVISIÓN, MEDIANTE CONCURSO-OPOSICIÓN, POR PROMOCIÓN INTERNA, DE LA PLAZA DE “AGENTE PRIMERO/A DE LA ESCALA BÁSICA DE LA POLICÍA MUNICIPAL”

Primera. OBJETO

Constituye objeto de las presentes bases realizar la convocatoria y regular el procedimiento de selección para la provisión de la plaza de “Agente Primero/a de la Escala Básica de la Policía Municipal” que se encuentra vacante.

El Tribunal no podrá seleccionar más personas candidatas que el número de plazas convocadas.

No obstante, el número de plazas convocadas podrá incrementarse con las vacantes que se produzcan antes de la finalización del proceso selectivo.

En el procedimiento de ingreso como funcionario/a de carrera del Ayuntamiento de Bergara se reconoce el principio de igualdad de mujeres y hombres.

Segunda. CARACTERÍSTICAS DE LA PLAZA Y DEL PUESTO

PLAZA

Agente primero/a de la escala básica de la Policía Municipal (De acuerdo con la clasificación del artículo 35.1.d del Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Policía del País Vasco).

Grupo de clasificación: C1

Retribución bruta total: Nivel retributivo 16 de las tablas salariales del convenio laboral.

Perfil lingüístico exigido: Perfil lingüístico 3, preceptivo, con la fecha de preceptividad vencida.

Horario laboral: El horario habitual será el que en su momento acuerde el ayuntamiento y venga exigido por las funciones del puesto, de lunes a domingo, en función del calendario y de las necesidades de los servicios.

Régimen de disponibilidad absoluta: El ayuntamiento podrá exigirle el régimen de dedicación especial al puesto, que será preceptivo.

FUNCIONES DEL PUESTO Funciones principales:

- **Funciones ejecutivas** Ejercer las funciones ejecutivas que requieren los cometidos policiales. Asumir el servicio de la Policía Municipal y los agentes a su cargo.
- ✓ Liderar un equipo de agentes de la Policía Municipal, darles instrucciones e información:
 - Preparar la reunión diaria del equipo. Reunirse con los/as oficiales y otros/as agentes primeros/as y preparar el material de trabajo. Planificar el servicio, poner los medios para el cumplimiento de los objetivos.
 - Dirigir la reunión del equipo. Organizar el servicio, distribuir tareas y herramientas de trabajo para el buen fin del mismo.

- Distribuir las tareas y cometidos de cada agente. Verificar la emisión y comprensión de los criterios, siempre con total neutralidad e imparcialidad, sin discriminación.
 - Organizar y planificar. Supervisar los servicios y el objetivo del trabajo.
 - Seguimiento y verificación del grado de cumplimiento de las tareas encomendadas a los agentes.
- ✓ Supervisar y gestionar todos los documentos elaborados por los agentes municipales (Atestados penales, accidentes de tráfico, informes...).
 - ✓ Ser instructor de todos los atestados realizados en el equipo a su cargo.
 - ✓ Cumplimentar un informe diario, en formato digital, con todas las incidencias del servicio.
 - ✓ Controlar todo el recurso material disponible y su estado.
 - Informar al equipo de todos los actos delictivos cometidos en Bergara y Alto Deba. Informar sobre las acciones previstas a corto y a largo plazo. Comunicar al equipo los cambios legislativos o protocolarios y formar a los agentes. Facilitar la recogida de opiniones o sugerencias de los agentes y actuar en consecuencia.
 - Cumplimentar diariamente, en soporte informático, el parte de todas las actuaciones de la Policía Municipal.
 - Proporcionar una emisora digital TETRA a cada agente y registrarlo en el soporte digital de la Policía Municipal para su control.
